

KOSTUEN EGITURA

Atal honetan, gure enpresako kostu desberdinak definituko ditugu. Gure enpresako kostuak, hemen sortutako taulan ezarriko ditugu.

Taula honetan gure hasierako inbertsioak ezarriko ditugu, hauek hasieran ordaindu behar ditugun gauzak dira. Gure enpresa sortzean, hauek izango dira guk lehenengo erosiko ditugun materialak.

Hasierako Inbertsioak

INBERTSIOAK	KANTITATEA	PREZIOA
Ordenagailuak	6	255€x6= 1530€
Mahaiak	4	129€x4=516€
Aulkiak	6	160€x6=960€
Mugikorrak	4	179€x4=716€
TOTALA		3.722€

Hasierako inbertsioan, behar ditugun materialak erosiz **3.722 euro** erabiliko ditugu haiek lortzeko eta lanean jarri ahal izateko.

Behin hasierako inbertsioa adierazita, kostu finkoak eta aldakorrak adieraziko ditugu, hauek hilabetero ordainduko ditugu.

Taula honetan kostu finkoak definituko ditugu, hau da, denboran zehar aldaltzen ez diren balioak izango lirateke.

Kostu Finkoak

KONTZEPTUA	BALIOA (hilero)
Alokairua/ UGASA	90€
Soldata	1.600€ x6= 9.600€
Maileguaren kuota	500€
TOTALA	10.190€

Kostu finkoak batuz, hileroko **10.190euro** ordainduko ditugu bakoitzaren soldata eta gure alokairua kontuan hartuz.

Lehenik eta behin salduko dugun unitate bakoitzeko kostu aldakorrak adieraziko ditugu. Hemen, kostu aldakorrak definituko ditugu, gure produkzioa, ekoizpen eta erabileraren arabera aldatzen joaten direnak izango lirateke.

Kostu Aldakorrak

KONTZEPTUA	BALIOA
Orrazia	6€
Spraya	3€
Kaxa	0,50€
TOTALA (kit osoa)	9,50€

Gure produktu osoa fabrikatzeko, produktu osoa, hau da, orrazia gehi spray-a eta hauek bere kaxan sartuta, bakoitzak 9,50 euro kostatuko lukete.

Kalkuluak egin ondoren, hileroko 500 orrazi-kit saltzea izango litzateke gure aurreikuspena.

Beraz, hilabete bakoitzeko 500 orrazi-kit saltzen baditugu, **(500x9,50) 4.750€** izango litzateke gure kostu aldakor totala.

Taula honetan, kostu totalak adieraziko ditugu. Kostu totala, kostu finkoak eta kostu aldakorrak batuz ateratzen da, hau da, guk hilabetero ordaindu behar duguna izango litzateke.

KOSTU FINKOAK	KOSTU ALDAKORRAK	KOSTU TOTALAK
10.190€	4.750€	14.940€

14.940€ izango dira hileroko edukiko ditugun kostu totalak.

Ondorioz, emaitza guztiak ikusita, gure helburua kalkulatu ditugun irabaziak lortzea izango litzake, eta pixkanaka hasierako inbertsioan saldatzen joatea.